



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.com

2014ko OTSAILA - 152. zenbakia

DENA PREST DAGO

"BARDOAK 2014"

HASTEKO

Ostiral honetan hasi eta apirilaren 12ra bitarte, talde-lanean oinarritutako ekimenak zeharkatuko du Nafarroa. Eskualdekako bertso-eskoletatik abiatuta, 16 talde ariko dira lehian, 110 parte-hartzaileekin. Horietatik 60 izango dira bertsolariak. Aurtengoa Bardeen bigarren edizioa izango da eta bertso-eskolen sarea indartzea izango du helburu.

Nafarroako Bertsozale Elkartek bigarren antolatuko du aurten Bardoak ekimena. Bertso-eskoletatik abiatuta, bertso-eskolen sarea indartzea izango da helburu. Talde-lana oinarri hartuta eta eskualdekako bertso-eskoletatik abiatuta, 16 talde hartuko dute aurtengoan parte. Denera 110 parte-hartzaile izango dira, horietatik 60 bertsolariak. Hala, talde bakoitzean hiru bertsolari, gai-jartzaile edo aurkezle bat eta taldeko ordezkari bat egongo dira gutxienez. 23 saio jokatu dituzte denera, eta talde bakoitzak bi saiotan kantatu eta bat antolatzeko ardura izango du.

Otsailaren 7tik apirilaren 12ra

Elkarte giroko saioak izango ditu aurtengo ekimenak, eta gehienak otorduen inguruan egingo dira. Hiru fasetan banatuko da "Bardoak 2014": otsailaren 7tik 23ra jokatu da lehenengoa, 16 saiorekin; martxoaren 7tik 30era bigarrena, 6 saiorekin eta finala, azkenik, apirilaren 12an ospatuko da, Lesakako frontoian, hiru talderekin. Finala arratsaldean jokatu

bada ere, egun osoko egitaraua prestatuko du Nafarroako Bertsozale Elkartek. Azken urteotan Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala bertsolariaren eta euskal kulturaren ezinbesteko hitzordu bilakatu izan da. Aurtengoak ere, lehiatik harago, bertsolariaren festa handia izan nahiko luke.

Nafarroa osora hedatuko da txapelketa, honako herrietan egingo baitira saioak: Lesakan, Zubietan, Erratzun, Arbizun, Iruñean, Txantrean, Beran, Otsagabian, Leitzan, Gaintzan, Barañainen, Uitzin eta Etxarri-Aranatzen. Saioak antolatuko diren herri eta bailaretako udalek babestu dute proiektua.

Txapelketaren jarraipena egin ahal izango da www.bertsozale.com atarian. Bertan taldekako bertsolari txapelketaren informazio osoa eta eguneratua kontsultatzeko aukera izango da. Sare sozialetan ere (Facebook-en eta Twitterren) xehetasun guztien berri emango da.



MAIALEN LUJANBIO

2014/01/25 Donostia (Bertso Eguna)

Lurraren pean sar nindaiteke

Batzuk elkarri kontu-kontari ironia ta xuxurla
batzuk harritu horrelakorik ez dela ikusi sekula
batzuk begira erlojuari noiz bukauko dan kalkula...
Holakoetan sintoma bat da ta grabea, ez da burla emakume hitza sarri entzuteak bete egiten gaitula.

Ikusten baitet hemen jendea kopeta beltz ximurtuta auzo lotsatan norbere lotsa eta sillan kixkurtuta beste batzuek enpatizatzen ta bihotza xamurtuta. Aurrerabide gutxi daukagu problematika gurtuta andreak beti konplejuz bete ta gizonak beldurtuta.

Baina ezin esan gure egoera errez denik ta atsegin batzuk nahiago ez entzun baina ezin diogu alde egin: bada parretik, bada izerditik bada nahiko lan, nahiko min kendu ditzagun hauts zaharrak ta kopeta beltzeri ixkin arazoaren jabe izan ta pozetik aurrera egin.



Talde argazkia.//NBE

Babesa Jagoba Apaolaza eta Iker Pastor bertsolariei

Bertsozale Elkartek bere babesa azaldu nahi die Entzutegi Nazionalen inputatuta otsailaren 24an eta 25ean epaituko dituzten Jagoba Apaolaza eta Iker Pastor bertsolariei.

Bi bertsolariak epailearen aurrera deitu zituzten 2013ko martxoan, Gasteizko Alde Zaharreko ZAHARRAZ HARRO jai herrikoietako egitarauaren barruan, 2012ko ekainaren 30ean, egin zen preso eta iheslarien senideen omenezko kalejiran bertsoak kantatzeagatik. Orain, otsailaren 24an eta 25ean epaituko dituzte, ekimen berean parte hartzeagatik inputatutako beste 11 lagunekin batera.

Bertsozale Elkartea osatzen dugun gizon-emakumeok uste dugu pertsona guztien iritzi eta pentsamenduak libreki adierazi ahal izatea eta errespetatzea ezinbestekoa dela, eta salatu nahi dugu libreki adieraztea eta sortzea galarazten duela egoera honek. Adierazpen askatasuna urratu eta euskarazko kulturgintzari zuzenean erasotzen diola uste dugu.

Egoera hau ez da berria, bertsolariek garaian garaiko eta tokian tokiko gertakizunen gainean kantatu izan dute beti, haien sentimendu eta pentsamenduak adieraziz. Horregatik, beharbada, beren jarduna jazarria izan da historiako hainbat momentutan. Garai horiek gaindituztat genituenean etorri da bertsolarien kontrako eraso zuzen hau.

Kultur jardun batengatik kartzelaratzeko mehatxua benetan larria da, guztiz onartezina eta irmoki salatu nahi duguna. Kulturak, biziko bada, ezinbestekoa du sortzaileak bere sentimendu eta pentsamenduak libreki adieraztea, eta epaiketa prozesuak berak dagoeneko baldintzatu egiten du adierazpen askatasuna. Adierazpen askatasunik gabe kulturak ez du etorkizunik.

Ohar honen bidez, gure elkartasuna adierazi nahi diegu epaituko dituzten bi bertsolariei eta haien senideei, eta kargurik gabe aske gera daitezen eskatzen dugu. Ez dugu onartuko era honetako mehatxurik, zentsurarik ezta zigorrik ere. Bertsoa aske, kultura aske.

Gai-jartzaile eta epaile ikastaroak egingo ditugu durangon

Bertsozaleei zuzendutako ikastaroak izango dira, bertsolaritza sustatu eta oinarrizko ezagutzak ematea helburu dutenak. Epaile ikastaroa otsailaren 19an izango da eta gai-jartzaile ikastaroa hilaren 26an.

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak gai-jartzaile eta epaile ikastaroak antolatuko ditu otsailean. Interesa daukan edonork izango du ikastaroetan parte hartzeko aukera, ez baita aurretiazko ezagutzarik eskatuko. Helburu nagusia bertsozaletasuna sustatzea da, eta, horrekin batera, baita oinarrizko ezagutzak eskaintzea ere. Izan ere, Bertsozale Elkarteak hala desio duten zaleei formakuntza emateko konpromisoa hartu baitu.

Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko, eta interesa daukanak bi aukera dauzka ikastaroetan apuntatzeko. Telefonoz egin dezake Bizkaiko Bertsozale Elkartera deituta: 94 6812711. Eta izena emailaz eman nahi izanez gero, honako hau da helbidea: bizkaikotxapelketa@bertsozale.com. Izena emateko epea otsailaren 16an itxiko da.

Ikastaroak asteazkenez izango dira, otsailean bertan. Otsailaren 19an, asteazkenez, izango da epailetza ikastaroa, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara. Hurrengo astean izango da gai-jartzaile ikastaroa, otsailaren 26an alegia, asteazkenez eta ordu berean. Bi ikastaroak Durangon izango dira, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen egoitzan.



Josu Goikoetxea ikastaroa eskaintzen.//XDZ

Joxepa Anttoni Aranberri Petriarenari buruzko **unitate didaktikoa**

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak Joxepa Anttoni Aranberri Petriarena bertsolari oreretarrari buruzko unitate didaktikoa prestatu du, Oreretako udalaren laguntzaz. Orain arte ia ezezaguna izan den bertsolari hau eta bere garaiko emakumeen bizitza hobeto ezagutzeko aukera eskainiko du.

Orain dela gutxira arte bertsolari ia ezezaguna zen Joxepa Anttoni Aranberri Petriarena (1863-1945). Antonio Zavala eta Carmen Larrañagaren lanetan agertu zen bere izena aurretiaz. Iaz Elixabete Perezek berari buruzko liburua argitaratu zuen Oreretako Udalaren laguntzaz.

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak Joxepa Anttoni Aranberri Petriarenari buruzko unitate didaktikoa prestatu du oraingoan, Oreretako Udalak lagunduta. Unitate didaktikoaren helburua, bere bizitza eta ekarpena plazaratzeaz gain, garai hartako emakume baten bizitzaren erretratua egitea da. Aurki landuko da ikastetxeetan.

Itsu geratu arren bertso-jartzaile

Bere ama, Maria Luisa Petriarena ere bertsotan fin aritzen omen zen, eta sarritan aritu zen kantuan Juan Frantzisko "Xenpelar" anaiarekin batera. Joxepa Anttoni Aranberri Petriarena itsu geratu zen, eta ingurukoek idazten zizkioten bertsoak. Ezagutzen zaion lehenengo bertso-sorta 1902an Ibaizabal aldizkarian argitaratutakoa da. Horiez gain, banaka jarritako bertso ugari omen zituen. Antonio Zavalak jasotako batzuk mantendu dira. Ofizios ehulea izan zen Erreneriako fabrika handian.



Puntua jarrita

JOANA ITZAINA

Desioak ase nahian

"Hala ere Xilaba BECeKo Belharraren segida apala izateko prest da eta aitzakiak aitzaki asko gara bustitzeko prest"

Nola ez gintaizke busti Lierni?

Merezi ote duen pentsatzen hasteko denborarik hartu gabe, lotuak gira larrazkeneko Xilaba berriari. Eta ez langile nekazean, serio eta arduratsuak girelako -nahizta hau ere bagiren!- baizik eta gogoa dugulako! Gogoa bai...ta desio bat ere. Ez duda, harek bultzaturik dugu aintzina egiten. Txapelketa Nagusiaren uhainak ez gaitu ito, eta Xilabako ziliportek kitzikatuko gaituzte, bizi girela frogatzeko doia baino zerbait gehiago naski!

Hala ere, hasiak gira, diozunaren haritik eta beti bezala, txapelketa antolaketari dagokion lexiko ta sintaxia mihian, *lan taldeak osatu ta antolatu behar ditugu, epaileak behar ditugu, gai egileak behar ditugu, aurkezleak behar ditugu ta, nola ez, bertsulariak behar ditugu...* Baina behar ez da hitza! Desioaz ari girela!

Desioak gaituela hortara eremaiten. Gure hiru lurraldeetan bertsolaritza bizirik nahi dugu, bertsu eskolen hazkundera lagundu nahi dugu, Euskaraz bizi diren herri ta herritarrak nahi ditugu, saioak nahi ditugu denetan ta usu, eta batez ere, bertsulariak nahi ditugu! Gure eguneroko errealitateari hurbildik kantatuko dakotenenak, hurbileko arrangura, zorion, paradoxa, konplexu, harrotasun, txiste ta galderak aipatu, jorratu ta sublimatuko dituztenak. Horrengatik ta horrendako ziren eta gira abentura hortan sartuak.

Desio baten ekaitzak indarra sortzen duela ezaguna da baina artetan, desio horren asetzea ere ez da txarra...

Bertsutan dakitenak kantuan entzun nahi ditugu, hau baita haien baliorik haundiena bertsegintzari begira. Baina idazteko tenorean hain ebidente den hori, bertsulari den bati transmititzeko tenorean zertako da adierazteko hain neketsua? Hau da gaur gogora heldu zautan galdera.

Xapelketan parte hartzeak dena ez du onetik, ezin uka. Xilaban parte hartzearekin batera gainera, dator militantzia haize hotz eta latz bat, gozamenaren izpi goxoak ahanztarazteraino joan daitekera. Egoera soziopolitikoak bakotzak bere egoera pertsonala konduan hartzeko edo baztertzeko eskubidea nun uzten du? Zoin da gure jokamoldea egitate horren parean?


Hortik noa, Gillen, zure gana. Zer suposatzen du gure lurraldeetan bertsulari izateak?

Koplak

"SegaPoto" aplikazioak "Gipuzkoa App" saria irabazi du

Gipuzkoako Foru Aldundiak banatzen duen "Gipuzkoa App" saria jaso dute Ion Lizarazu eta Manex Agirrezabalek "SegaPoto" aplikazioarekin. Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean garatutako Arbel Digitalean oinarritu dira aplikazioa lantzeko. "SegaPoto"-k aukera ematen du sinonimoak eta oinak bilatzeko eta silabak eta oinak zuzentzeko. Bertso doinutegi bat ere badakar.

Poto-Finixa



Harpidetuz zaituzte Bertsozale.com buletinera

Bertsozale.com buletinera harpidetuz gero, astean behin Bertsozale Elkarte alabasterik garrantzitsuenen eta agendako ekitaldi nagusien laborpena jasoko duzue zure e-posta helbidean. Horretarako, nahikoa da helbide honetan dagoen formularioa betetzea: <http://www.bertsozale.com/eu/egunean/buletina>

E-posta helbideak modu konfidentzian tratatuko dira, ez zaizkie Bertsozale Elkarte ez den hirugarrenei utziko eta ez duzue publikizaterik ez bestelako edukirik jasoko. Gainera, harpidetza nahi duzun garaian utzi ahal izango duzue.



TXIMELA KAPITAINAREN IZARRAK

Joseba Tapia ren emanaldia eta diska, www.lanku.com en

